

ADDIS ABEBAK EZ DIO ZIGORRARI JARAMON HANDIRIK EGIN, ETA AURRERA SEGITU DU ERITREAKO LURRAK BEREGANATZEN

Urtebeteko arma bahimendua ezarri dute Nazio Batuek Etiopia eta Eritrearen aurka

■ Herrialde batek zein besteak zigorra «bidegabea» dela esan dute, eta elkarri leporatu diote gatazka hasi izana

■ Errusiak, Italiak, Frantziak eta Txinak arma ugari saldu dizkiete azken bi urteetan, eta militarki oso indartsuak dira

■ Etiopiaren eraso oso gogorra ari da izaten; mugako eremu polemikotik haratagoko lurak ari da hartzen

Erredakzioa / Donostia

ESPERO zen bezala, NBE Nazio Batuen Erakunde Segurtasun Kontseiluak urtebeteko arma bahimendua jarri du indarrean Etiopiaren eta Eritrearen aurka, bi herrialde horien arteko gerra nolabait geratzearren. Izan ere, duela egun batzuk, muga inguruko lurak direla eta, elkarren kontrako borroka gogorrean hasi ziren berriro bi herrialdeak, eta gerra gero eta gehiago ari da gogortzen. Inguru hartako herrialde guztiek aho batez onartu zuten. Beraz, hurrengo hamabi hilabeteetan ezingo zaie ez Etiopiarri, ez Eritreari armarik saldu. Epe hori amaitzen denean, berriro aztertuko du Segurtasun Kontseiluak Etiopiaren eta Eritrearen arteko harremanak nolakoak diren, eta horren arabera erabakiko du bahimenduarekin aurrera segitu edo ez. Gerta daiteke, gainera, orain erabakitako neurriak eragingarriak ez izatea eta gogorragoak onartzea NBEk.


Herenegun gauean bozkatu zuen Segurtasun Kontseiluak Afrikako Adarreko bi herrialdeak zigortzeko egitasmoa, eta erakunde herrialde guztiek aho batez onartu zuten.

Beraz, hurrengo hamabi hilabeteetan ezingo zaie ez Etiopiarri, ez Eritreari armarik saldu. Epe hori amaitzen denean, berriro aztertuko du Segurtasun Kontseiluak Etiopiaren eta Eritrearen arteko harremanak nolakoak diren, eta horren arabera erabakiko du bahimenduarekin aurrera segitu edo ez. Gerta daiteke, gainera, orain erabakitako neurriak eragingarriak ez izatea eta gogorragoak onartzea NBEk.

Entzungor

Zigorrari muzin egitea eta bere asmoekin aurrera jarraitzea izan da bahimenduaren berri izan ostean Etiopiako Gobernuak erakutsi duen jarrera. Hain zuzen ere, Nazio Batuek erabakia jakinarazi eta ordu gutxira, Eritreari erasotzen segitzen zutela azaldu zuen Addis Ababako Gobernuak, eta Barentu hiri estrategikoa eskuratu zutela.

Inguru hori menpean hartuta, mugako eremu polemiko eta gatazkatsuak gainditu



Segurtasun Kontseiluko kideak, arma bahimenduaren aldeko botoa ematen.

Barentu hiri estrategikoa menpean hartu du Etiopiak

■ ETIOPIAKO indarrek aurrera egin dute Eritreako mugetatik barrena, eta Barentu hiri estrategikoa hartu dute, Eritreako hegomendebaldeko hiri garrantzitsuena. Handik igarotzen da Eritreako erdialdea eta mendebaldea lotzen dituen errepide

nagusia, eta, gainera, Gash-Barka probintzia aberatsean dago.

Eritreako tropek hiritik alde egin zuten atzo, hiru egun borrokan aritu eta gero. Hala adierazi zuen Etiopiako irati estatalak.

«Antolatu egin ziren eta hiriaren kon-

trolari eusten saiatu, baina, artilleria eta aire erasoei esker, eritrearrek atzera egin behar izan dute», azpimarratu zuen Etiopiako Gobernu bozeramaile Haile Kirosek.

Eritreako 550.000 herritarrei eragin die Etiopiako soldaduen aurrerakadak, Eri-

treako giza agentziek atzo azaldu zuten.

Etiopiaren ofentsibaren beldur dira Eritrean. Horregatik, Akordat hiria husten ari ziren atzo, Barentu eta Asmara lotzen dituen errepideak zeharkatzen baitu hiria.

eta Eritreako lurretan sartu da Etiopia.

1998an hasi zen bi herrialdeen artean gerra: herrialde batek zein besteak muga ondoko lur eremu zabal bat berea dela esaten du. Orduan Eritreak hasi zuen erasoaldia, eta eremu horretako hainbat gune menpean hartu zituen. Oraingoan, Etiopiak hasi du gerra, eta mugako lurralde horretatik haratago, Eritrearen lurak ari da eskuratzen; Barentu ingurua, kasu. Aditu batzuek esaten dute Etiopia indartsu sentitzen dela eta garaipen zabal bat lortu nahi duela gatazka behin betiko itxeko.

Herrialde bateko zein beste gobernuak haserre hartu dute Nazio Batuen erabakia. Bai Addis Abebak, bai Asmarak, beren kontrako neurriak hartzea «bidegabea» dela adierazi dute, eta bestearen inbasioaren biktimak direla uste dute.

Zigorra, berandu

Nolanahi ere, Nazio Batuen zigorra eragingarri izateko beranduegi heldu dela iritzi diote nazioarteko hainbat adituk. Izan ere, azken bi urteetan leporaino armaz hornitzen erabili dute beren dirutik asko bi herrialdeek, eta, ondorioz, militarki indartsuak dira egun. Hain zuzen ere, 1998an gerra aurreneko aldiz hasi zenetik, Etiopiak eta Eritreak armetan egunero milioi bana dolar gastatzen dutela uste dute.

Errusiak eta Bulgariak arma ugari saldu dizkiete bi urteotan bi aldeei. Eritreak Italia ere izan du hornitzaile, eta Etiopiak Frantzia eta Txina ere bai. Era berean, Errusiaren eta Frantziaren diru laguntzak jaso ditu Etiopiak, eta Golkoko herrienak —Qatar eta Libiarenak batik bat— Eritreak. 50.000-80.000 lagun izatetik 300.000 lagun izatera igaro dira bi herri horietako armadak.